

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko martxoaren 6a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Ekitaldi ugari Emakumearen Eguna dela eta.

Jose Miguel Albeniz • Larra-Belaguako eski pistak handitzearen alde.

Miguel Angel Elizaga (ezkerraldekoa), lagun batekin, seme zaharrenarekin eta aitarekin 1972ko Lizarrako jaietan. • ELIZAGA



Lizarrako gaitarien jatorrizko doinuak

Lizarrako hiru gaitari familiek –Elizagarra, Perez de Lazarraga eta Montero– 1930eko hamarkadatik 1970ekora bitarte jo izandako jatorrizko piezak biltzen dituen lana kaleratu berri dute Lizarrako udal gaitarietako eta Etxe-Ondo disketeak. Musikariok egindako lana omendu eta gorde nahi du bildumak.



Lizarra • Egitarau oparoa

Emakumearen Eguna ospatzeko

Jardunaldien berri ematen duten 3.000 liburuxka banatu dituzte emakume taldeek

Inoiz ez, ez niri, ezta beste inori ere lelopean, anitz ekitaldi antolatu dituzte Lizarrako hainbat emakume taldek etzi, martxoak 8, Emakumearen Eguna ospatzeko.



Inoiz ez, ez niri ez beste inori ere lelopean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Lizarrako emakume taldeek. ANDER GILLENEA

MARTXOAREN 8A JAI GIROAN ospatzeaz gainera, emakumeek gaur egun jasaten dituzten injustiziak salatu nahi dituzte Lizarrako taldeek. Aldi berean, sexuen arteko berdintasuna aldarrikatuko dute. Jardunaldiak Lizarraldeko Emakumeen Asanbladak, Emakumearen Kultur Elkartek, Almudi Kultur Elkartek eta Lizarrako Emakumearen Udal Batzordeak antolatu dituzte. Horretarako 230.000 pezetako aurrekontua izan dute.

Ekitaldiak herenegun hasi ziren, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko hitzaldi batekin. Socorro Sotes, Julia Goñi (Andrea) eta Begoña Zabala (Emakume Internazionalistak) abokatuak emakumeek pairatzen dituzten tratu txarrei aurre egiteko gaur egun indarrean dagoen legediaren berri eman zuten. Gaur, berriz, *Shirlie Balantine* izenburuko filma eskainiko dute Fray Diego kultur etxean. Ema-

naldia arratsaldeko 18:00etatik aitzina izanen da.

Igandean, Emakumeen Egunean alegia, kontzentrazioa eginen dute Foruen plazan, eguerdiko 12:00etan. Aurretik omenaldia eginen diete aurten Espainiako Estatuan tratu txarren ondorioz hil diren sei emakumeei, eta ondoren komunikatu bat irakurriko dute era horretako erasoak salatzeke. Iluntzean 70 bat emakume elkartuko dira afaltzeko.

Ekitaldiek segida izanen dute ostiralean, hilaren 12an. Moles-tias Klownicas taldeak *La espera* antzerki lana taularatuko du, arratsaldeko 20:00etan, Musika Eskolan. Hilaren 17an, berriz, bideo emanaldia izanen da 18:00etan, Kultur Etxean. Bideoan harremanen munduan emakumeek duten jokamoldea aztertzen dute. Ondoren mahai-ingurua eginen dute. Hilaren 26an emakumezkoen litera-

tur lanak ematen dituzte ezagutzera, *Nola trakurri liburu bat* saioan. Azkenik, hilaren 31n, Ana Sukunza psikologoak nork bere buruaren onespina lortzeko aholkuak ematen ditu, *Positiboki pentsatu* hitzaldian. Hori arratsaldeko 19:30etan izanen da, Kultur Etxean.

Elkarlanean aritu diren emakume taldeek 3.000 liburuxka banatu dituzte Lizarran. Liburuxkan, lankidetzaren garrantzia

nabarmendu dute: «Martxoaren 8an, etxe barruko biolentziaren aurkako oihu bateratua izan nahi dugu. Irtenbideak sakonak, askotarikoak eta integralak dira, baina bada zerbatik emakume guztiak batzen gaituena, hots, elkarturik aurrera jotzeko eta tratu txarrak zein sexu erasoak desagertarazteko dugun gaitasunaren ezagueria».

→ Kristina Berasain

zubian barna

BINGEN AMADOZ



iluntasunaren sarrera izan badira ere zeinen ederrak diren ilunabarrak! Gauaren belztasunak gure bildur guztiak biltzen ditu eta hala ere haren iragarle diren azken argi ahulei begira egoteak lasaitasuna eta gozamen ematen ditu. Onetik txarrera eta txarretik onera erraz aldatzen gara eta batzuetan gainera ez dakigu onean ala txarrean gabiltzan, kontraesanen menpe bizi garelako. Zergatik izanen dira hain labur ilunabarrak? Gauzarik ederrenak, zorionik sakonenak labur izan behar direlako, agian. Eguzkiaren gorritasuna itzaltzen ikustea malenkoniatsu izan

daiteke, baina baita barmekaldearen betegarri ere.

Uxueko bakardadeetan ikusi dut azkenekoa. Garaiera haietatik zerumuga gorrikkaren azpitik laino-adarrek edertasunez jantzen zituzten sakanak eta muinoak. Beheko herrikkak izkutaturik zeuden hartan, Moncayo errege ageri zen bere urruntasunean, lainoen gainetik eta mementua goxatzeko tentaldiari ezin eutsiz bide bazterrean geldiarazi nuen kotxea.

Berehala beste gidari batek jarri zuen bere kotxea nirearen ondoan. Hantxe geratu zen zerbait gertatzen ote zitzaidan galdetzeko,

aberiarik ba nuen jakiteko behar izatekotan laguntza emateko. Haren burutik ez omen zen pasatu ilunabarrarean ni egotearen arrazoia. Naturaren lilurak ez gaitu denok harrapatzen edota agian ez denok batera. Elkartasun-adierazpenean aurrean inor gutxi da ordea, hotz.

Ilunabarrak sortzen duen majia ederra bada zenbat ederragoa da gizakiak duen balorerik handienetarikorekin batera ematen baitzaigu.

Ez dago dena galdurik. Naturak bereak ematen segitzen du eta gizakiaren artean ontasunik ere bada oraindik.



urdai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Sakana

Haur errusiarrak
familietan
hartzeko
kanpaina
abian da

UDAN HAUR ERRUSIARRAK HARTZEN dituzten familien kopurua handitzeko kanpaina abian jarri da Sakanan. Errusiako umezurtzetxeetako haurrek udaldiko bi hilabeteak Sakanako zenbait familiaren etxetan ematen dituzte. Familia horien kopurua handitzeko kanpainaz gain, dirua jasotzeko bi zozketa ere martxan jarri dituzte Sakanako bi herritan, Altsasun eta Arakil-Uhartan. Sakanako familiok lehenengoz Mugarik Gabe gobernu kanpoko erakundearen laguntzarik gabe eginen dute lan aurtengo kanpainan. Haur errusiarrak lehenengo aldiz Irurtzuna etorri ziren duela lau urte. Irurtzundarren esperientziaren ondoren, duela hiru urte Sakanako beste herri batzuetara etortzen hasi ziren ume errusiarrak: Arakil-Uhartera, Irañetara eta Altsasura. Aurten haur errusiarrak hartzen dituzten familien kopurua handitzeko, informazio kanpaina hasi da. Errusiako umeak hartzen dituzten familiek, batez beste, 50.000 pezeta ordaintzen dute. Dena den, lehen aldiz etortzen diren haurren bidaia Errusiako Administrazioak ordainduko du. Sakanako familiek antolatutako zozketako diruarekin gainontzeko gastuak ordaintzeko dirua ateratzea espero dute.

→ Amaia Amilibia

Uitziz • Lainomendiko kideak errugabeak dira

Diru publikoaren eta lur komunalen jabe egin izanaz akusatu zituzten

GUztira BEDERATZI UITZIAR ZIREN auzipetuak. Haien artean, 1988an alkate eta zinegotzi zirenak. Salatzailleak, berriz, gaur egungo udaleko kideak. Eta salaketa, hau: behi kooperatiba eraikitzeke erabili zuten dirua diru publikoa zela, eta lurra, berriz, komunala. Epaitegiak dio, ordea, aferan ez dela engainurik izan, eta errugabetzat hartu ditu.

Aspaldiko urte hauetan uitziarren arteko harremanak ez dira oso onak izan. Berez biztanle gutxi izanik, galera, bitan banaturik zeuden: salatuen aldekoak eta salatzailleekin bat egin zutenak. Bestalde, urteak aurrera egin ahala, ezin konpondu horiek are agotu egin ziren. Fiskalak eskatzen zuten hamar urteko espetze zigorrak min handia egin zezaketen herrian. Baina, besteen ustez, kooperatibakoek herriari egindakoa ere mina zen.

1988. urtean hasi zen dena. Nafarroako Gobernuak 23 milioi pezetako dirulaguntza (920.000 libera) eskaini zion Uitziko herriari, irastordiak egokitu zitzaizkion. Hamar milioi horretarako erabili zituzten, baina gainerantzeko 13ak behi kooperatiba eraikitzeke erabili zituzten. Orduan alkate zen Juan Cruz Martirenak eta beste auzipetuek diotenez, momentu hartan udalbatzar bat egin zen, eta ia-ia herri guztiak hartu zuen parte. Han azaldu zuten asmoa, eta argi utzi omen zuten nahi zuten guztiak kooperatiban parte har zezakeela. «Nafarroako Gobernuko Mendi eta Nekazaritza sailako teknikariek horixe ahol-



Uitziko Lainomendi kooperatiba.

• URKO ARISTI

katu ziguten. Dirua kontzejuaren bitartez itzuli behar genuen, baina kontzeju bitartekari besterik ez zen; dirua kooperatibak itzultzen zuen», dio Juan Cruz Martirenak.

Kooperatiba lur komunaletan eraiki izana ere ez dute ukatzen Lainomendikoek. «Baina orduko batzar hartan, baimena eman zitzaizkion horretarako. Baldintza bat jarri ziguten: lur komunaletik hartutako moduko saila itzuli behar genuen gure lurretatik», azaldu du Martirenak.

Lainomendiko kideen ustez, gatazkari erabilpen politikoa bilatu nahi izan diote. «Hasiara-hasiaratik azpimarratu da orduko alkatea HBkoa dela. Eta bestetik, nabaria da, honen guztiaren atzetik, Jose Mari Aierdi Lekunberriko alkatearen eskua dagoela».

Juan Luis Apestezia da gaur egungo kontzejuaren ordezkaria, eta berak dioenez «kontzejuaren jarreran ez da inolaz ere asmo politikorik bilatu behar». «Guk egin dugun gauza bakarra, kontzejuaren interesak defendatzea izan da», dio. Apesteziaren iritziz, kontzejuaren gidaritza eskuratu zutenean, desinformazioa zen nagusi. Nafarroako Gobernura jo zuten, horrenbestez, eta ondorioz Kontu Ganbarak bideratu du prozesua. «Egungo kontzejuak esplotazioaren jabegoa eskatu du, bai, baina horrek ez du esan nahi esplotazioa berea izatea nahi duenik. Kontu epaitegiak eman duen sententziak garbi utzi du hori, esplotazioa Uitziko kontzejuarena dela, alegia», gaineratu du.

→ Urko Aristi



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Lagunak minbiziaren aurka

Ttipi-ttapa aldizkariako azken zenbakiak minbiziari eskaini dio erreportaiak. Bortzirietako gaixoak biltzen dituen Lagunak elkarterari buruz idatzi baitu Aitor Arozenak artikulua nagusia. «Bortzirietan, minbizi edo kancer gaixotasuna duten edota izan dute biltzen dituzten Lagunak Elkarteak. Hilabete behin elkartzen dira Lesakako Osasun Zentroan hirugarren asteko ortziralean, arratseko 7etatik aitzinera. Oraingoz hamar bat lagun hurbiltzen badira ere, egoera honetan dagoen jendea -baita senideak eta sentsibilizatutako edonor- animatu

nahi dute, bileretara joan dadin: «eritasunaz solastea eta esperientziak elkar trukatzeko denontzat mesedegarri da».

Lagunak elkartereko kideen testigantza jasotzen du **Ttipi-ttapa**-ko erreportaiak: «Irudi txarra dauka eritasun honek eta gaia gogorra da. Minbizi aditu eta jendeak aurpegi arraroarekin begiratzen zaitu. Hor dagoen eritasuna da eta aurre egin behar zaio. Jendeak beldur eta tabu horiek kendu eta minbiziari lasai ederrean solastea nahi dugu, gripeaz solasten ahal den bezala».

Haien ustez, gaur egun, minbizi ez da

beti heriotza, eta argi eta garbi azpimarratzen dute: «Gu geone gara adibiderik garbena, eritasunarekin borrokatu eta hemen gaudelako. Minbizi ez da heriotza, minbizi borroka da, bizitzeko borroka. Ez gara inor baino gehiago ezta inor baino ausartagoak ere, guk bizi nahi dugu, hori bezain ximplea da, ez dugu bertze aukerarik. Gu ez gara eritasunaren bila joan, bera etorri da, ez gara heroeak. Gu hagitz zoriontsu sentitzen gara, atera garelako. Zientzia aurreratu dago eta gu horretaz aprobetxatu gara, ez dugu deus berezirik egin».

Kanta diezaiozun Garizumari

Biba Garizuma! (birritan)

1993an Mossad-eko seikote bat helikopterora igo eta gauaz baliaturik Libanora abiatu ziren Jihadeko buruzagi bat akabatzen. Mediterraneo lainotsu haren gainetik zihoazen gizon haiek heriotza banatzen espertuak ziren. Bazekiten behatz bakar batekin gizaki bat hamar modu diferentetan hiltzen. Beren fusilekin (laserizpidunak) kilometro batera dagoen arkakuso bat jotzeko gai ziren (begien artean). Botean labana bat ez, baizik eta zortzi edo bederatzi (pozoiturik!) eramaten dituzten eliteko talde horietako partaideak ziren. *En fin*. Kontua da, norabidea erabat galdurik, Iruritako Herriko Plazan lurra hartu zutela, noiz eta Inaute gauean.

Israeldarrek harriduraz begiratu zituzten libanoar haiek. Iruritarrek, aldiz, jendaki arrotz haiek kopetan zituzten *kamera* infragorridunak ikusi orduko haiengana jo zuten (hura sarraskia!!). Mementu hartan bertan eten egin zen israeldarrek Tel Avitekin zuten irratik konexioa. Radarretatik ezabatu ziren seinale guztiak eta, gaur egun, Jerusalemgo kanposantu militarrean beren izenak dituen plaka bat jarrita dago: «Aberriarentzat lanean galdutakoei» leloa zizelaturik duela.

Biba Garizuma! (birritan)
Bukatu dira herrietako Inoteak. Akabo Orakunde beldurgarriak! Nafarroan zehar inongo beldurrik gabe mugitu gaitzake. Ezin dut sinetsi. Zer diozu? Gustura aterako zeniokeela argazki bat etxe zahar horri? Atera ezazu redios!, beldurrik gabe, bota ezazu karrete osoa gizona! jajaja. Eta ez hori bakarrik: taberna horretan sartu eta pote bat hartuko dugu, bertakoekin, baietz! Herriko neskin tonteatzeko aukerak sortzen badira tonteatuko dugul, eta beraiekin batera suntsitutako helikopteroaren gainean eseriko gara garardo batzuk edatera. Hor zer jartzen duen galdetzen didazu? Israelgo Aire Armada jarriko du, ezta? Galdetu ilegorri eder horri, horrek jakingo du eta.

Biba Garizuma! (birritan) ●

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

XVIII. mendeko hiztegi-gile ahaztu bat: Jose Arakistain (II)

Arakistainek Larramendiri igorri hitz zerrendaren osagarriak ere arras interesgarriak. Hasteko, 1746.eko uztailean Erronkarin predikalari zegoela -fresko-freskoak beraz- bertan jaso 64 hitz ditugu.



AURREKO ASTEAN, JOSE ARAKISTAIN karmeldarrak Iruñetik 1746.ean Larramendiri igorri eskutitzaren gaineko azalpenetan moztu genuen. Muztuko dugu, bada, gaurkoan paper horretan Itziarkoak Andoangoari ziotsanarekin: «Berorrec Egunarotiac -*Diario de los literatos de España*-z arida-lotsatu, Mayans gaixoa arritu, eta Armesto galiciarra izitu dempora guichi bateco. Baiña osterera ere zorrotz bitza, guere Maysu andia, egatsac. Guere euscaldunac ere leen becein burumotzac izango dirade, cerren ez tuten ona ezagutzeco beguiric, eta berorren zorrotz asuna, eta ciadea icusteco, miraritzeco eta chaltzeco ezagueraric. Ezta ordea cer ansi, jardun beguio aitzinat ere lan oni, gai gustiac prestatuic dauden ezquero. Oraindiñoco nequeac ezteve izan neurriric, baiña aurrera-coac chit errazac dira, iragoen aldean. Gucitu beza oraindic ere eusquerazco hizteguia, bada hitz asco falta dira, berorrec esaten digun bezala. Artaco bialtzen dizquot batu ditudan chirdil batzuec, ecertaco gauza badira». Txirdil batzu horiek, Nafarroan eta Gipuzkoan guziz gehien, baita Iparraldeko hiru idazle klasikorengandik jaso hitz zerrenda oparoak izan ziren. Seguroenik, lagundiaren kanporaketarekin, idazki hauek Larramendiren beste paper askorekin batera Madrileran eraman zituzten, eta hantxe idoro zituen Fita aitak, 1880.eko argitalpena ahalbidetu zuena. Fitaren transkripzioak dituen akatsak direla eta, Unzuetak berria egin digu, baina ezin uka Fitarenaren garrantzia, izan ere, Larramendiri eginiko gutuna eta bertsoak, egun, Madrileko Historiaren artxibategian ez daude, omen, hitz zerrendekin batera.



Gutunaren ostean, esan bezala, laudoriozko laukoak bazetozen, euscaldun batec eusqueraren aitari vialcen diozcan esqueremañac: «Larra eguñic egon dira / Euscalerri-co mendiic / Baiña ondo garbitu dituz / Larramendi andiic». Bigarren sorta bazegoen egon, euskara eta erdara tartekatuz, Larramendik, eta Mayansek eta Armestok, beren hizkuntz-borroka pilotan garbituko bailuten: «Pillotan abiatu dira / Un Mayans y Armesto / Oec ateratzen dabee / Un vascongado al resto. Zocondoric zocondo / Las van arrojando / Eta aien irri eguiten / Las vuelve silbando. Chil eguñic oec / Salen del partido / Ipurdico bana / Qué bien merecido!».


Arakistainek Larramendiri igorri hitz zerrendaren osagarriak ere arras interesgarriak. Hasteko, 1746.eko uztailean Erronkarin predikalari zegoela -fresko-freskoak beraz- bertan jaso 64 hitz ditugu: elchanoa (puchero), guerguiscoac (calzones), cunchurria (garganta), lantrua (montera), zaipecoa (basquiña), erden (infierno), conearca (robo), clima (saco), gaitzurua (cuartal), curzurua (devanadera), taica (tocado de la cabeza), calzaria (liga de la media), mugurdia (tipo de árbol), latsuna (cal), erguia (novillo), marfuca (catarro), iansoa (tocino), apana (pandero), piscoletea (ombligo)... Ondoan, han hemenka hartu 1.300 inguruko hitz bilduma ederra, esaerak eta paradig-

maren bat barne, eutsi aditzarena hain zuzen, eskeintzen digu. Nafarroan jasotakoa ez da sos baten huskeria. Besteak beste: cusña (almohada), adarnatu (podar), anderraiac (lechezuelas), viciquidea (consorte), atcinguilla (meñique), loloac (sienes), goronza (pañó de la cabeza de las mujeres casadas), zaldunaqueta (juego de los chinos), languria (tela que se crea encima del vino), arrufelatu (rifar), beti bigar, beti bigar: ezten onela vici bear, guere zaiñac eguin dira, basoan zotzac becein igar (*el que espera desespera*), birich edo bacun (pares o nones), eguiac sasiac erretzen (*la verdad amarga*), to to saluxan, nola lan ola jan (*el que bien trabaxa debe comer bien*),... Bukatzeko, Etxeberrri Sarakoaren, Etxeberrri Ziburukoaren eta Gazteluzarren idazkietatik esleituriko ia 300 hitzetara iristen den zerrenda ere bazekarren. Beraz, osotara 1.700 sarrera inguru dira, Azkuek bere hiztegirako Araq. epigrafearen azpian erabili zituenak. Fitarengandik hartuta baina, orobat, hark zitzakeen akatsekin barne.

Arakistain ez zen bakarrik Larramendiren hiztegiari emendioak eta gehikuntzak eranstean. Itziarkoaren urratsak ere beste egile batek eman zituen, Diego Goitandiak hots. Honek, bizkaierazko hainbat ordain erantsi zituztion 1754.ean erositako Andoangoaren hiztegi bati. Ezin esan, tamalez, orri txurietan sarturiko hitzak erosturtean ere idatziak izan zirenentz, eta ezin asmatu, horregatik ere, Diego Goitandia hura, Aulestiko Diego Goitia (1739-1829) josulagun beraxe den, hau da, *Ejercicios de bascuence en dialecto central o guipuzcoano* gipuzkerazko esaldi bildumak idatzi zituen.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Sua itzaltzeko kea

ESAN BEHARREKOAK esanez bada ere, gauzak hobeki argitu behar omen nituen aurreko asteko artikuluan. Filologoaren gizatasun sanoan, endemas beren uxtea (exkaxia?) apaintzera euskararen abarora bildu direnanean, deus guti sinesten badut ere, saiatuko naiz. Hauze da lbonnek azkeneko liburuan esaten duena, «inprenta-hutsa» sarreran:

«J. R. Zubimendi eta P. Esna-len *Idazkera-liburua*-n *inprimatze-hutsa* proposatzen zela eta, P. Perurena hor atera zen sutua, «denok» *inprenta-hutsa* erabiltzen dugula esanez. Beti berdin Perurena: ez dago espainola ez den euskaldunik, antza. Pentsatu behar luke, bere *inprenta-hutsa* frantsesez *coquille* edo *faute d'impression* dela, hots, *inprimatze hutsa*».

Baina, beste kontu ergel zentzuzko askoren artean, honako hauze esan nuen nik artikuluan hartan:

«*Inprimatze-huts*. Oi, bai hitz zakarra! Ez ote litzake senekoago: *inprentako hutsak*, *inprimategiko hutsak*, edo horrelako zerbait? Atzenaldiko euskalgintzan sumatzen dudana hutsik nabarientakoa, -ko horrekiko esker gaiztoa da. Hitz tarteko marra gaizto itsusi hori (-) gailendu zaio, eta niri nazka ematen. *Famili-liburua*, *lan-baldintzak*, *eskola-orduak*, *gramatika-batzordea*, *taller-maisua*, *matrikula-epea*, *zerbitzu-kontratua*... milaka dira adibideak. Ez ote dira euskal senekoago, eta beraz begira ederrago eta belarrira gozoago: *familiko liburua*, *laneko baldintzak*, *eskola-ko orduak*, *gramatikako batzordea*, *tallerreko maisua*, *matrikulatzeko epea*, *zerbitzutako kontratua*... Letren abstrazio arrotzak irentsi behar digu, noski, hizketako ezti guziaz».

Bistan da, nik esandakoa, erabat bere aldera irauli duela Ibontxuk. Nere ahokotzat erabili duen hori ez baitut santa sekulan esan nik, eta are gu-

txiago horren aldeko surik inon azaldu. Hori aski ez, Ibontxuk, nik sinalatzen nuen euskal usuarioa hankazpira bota, eta nik ez bezala, *espainol hutsa* eta *frantses hutsa* hartu ditu eredutzat: *fallo de imprenta* edo *faute d'impression*, eta horien kalko hutsa euskaratzat eman.

Ibontxuri egiten diot galde. Bidasoaz haruzko euskaldunek, bere «*inprimatze huts*» horren erabiltzen ote dute? Harritzen naiz. Filologo izan gabe ere, euskal belarridun batek, -*tz(e) hutsa* erako joskera, zentzu horretan (kale, oker) nekez aurkituko baitu euskal usuarioan: niri benpe arrotz egiten zait belarrira, oso bestelako esanahia dutenok ez bezala: *ekaritze hutsa*, *mila duro kostatzaio*; *eramate hutsa*, *gutxi al da?*; *ikuste hutsak*, *poz ematen dit*.

Beraz, *huts* hitzaren bi zentzu horiek (*bakar/ oker*) nahastera bestetara ez letorke gurera joskera frantses hori. Horregatik, euskal seneko batentzako *inprematze hutsa*, hola bapatean aditurik, *inprimatze* soila da, eta ez inondik ere *inprimatzekoan egindako hutsa*; izan ere, batzutan espainolak baino frantsesak itsustuago bailezake euskara. Baina, hori nekez ikus (suma) lezake Ibontxu donoxtiar katalandu euskaldun ustekoak, hiztegi edo entziklopedi sakratu ergel batzuetako hitz konputagailuz disekatuak beste eredurik gabe, maisu bakar usteko eginik datorkigun artean.

Nik aski dut. Ibontxu ez bezalako euskaldunekin, Frainzi aldekoak barren, euskaraz xamur aritzeko, eta senik galdu gabe elkar goxoro ulertzeko, *inprentako hutsak*, *inprentako probak* eta gisakoekin. Molde hori baitugu, alde haundiz gainera, testuinguru horretan ezagunena, erabiliena eta etxekotuena. Ez dut, halere, inolako asmorik *inprimatzaile*, *inprimaki* eta gisakoak ez erabiltzeko; ez eta *irar-probak*, *irar-hutsak*, *moldiztegiak*, eta gaineko apainkeriak inori ukatzeko.

Ziria

• Motxorrosolo •

Lehendakariaren aldaketa

KANTONAMENDUKO BOZKEK PROTAGONISMO NAGUSIA DUTEN HONETAN, Nafarroa Garaian ez da giro. Eskubia, historikoki, ate barne-tik ahul da. Kanpokoari baino gehiago barnekoari dio beldurra, ezagutu diren kanporaketak lekuko. Minbiziaren zaina barnean du. Sanz jauna, moral kontuak direla eta, ez dator bat Cervera eta Gurrearekin. Gainera, horiek dira lehendakari postutik Sanz kendu nahi dutenak.

Jose Miguel Albeniz

☉ Eski irakaslea

«Larra-Belaguako pistak hobetzea beharrezkoa da»

Jose Miguel Albeniz Erronkariko Bailarako Eski Eskolako zuzendaria da. Larra-Belaguako naturgune babestua hartzen duten eski pistak handitzeko aurreproiektua inguruaren etorkizunerako beharrezkoa dela dio. Nafarroako alderdiekin egindako bileran ere izan zen.

soslaia

Jose Miguel Albeniz iruindarrak urteak daramatza Izaban. Izabaz maiteminduta joan zen hara bizitzera. Deustuko Unibertsitatean Enpresa Zientzietan Ikasi zuen arren, eski irakasle izatea hautatu zuen.

Badira sei urte Erronkariko Eski Eskolako zuzendaritza hartu zuela. Geroztik iraupen eta eski alpinoko klaseak ematen ditu. Eskolak hamahiru urte darama martxan eta bailarako 25 langile ditu bere kargu. Udan maiz joaten da mendira eta bizikletan ibiltzera.

Oilarren kukurrukuarekin esnatzen da Albeniz. Goizeko zazpiak eta laurdenetarako AEKra joaten da euskara ikastera. Bailaran gero eta gehiago omen dira galdutako hizkuntza berreskuratzen diharduten helduak. Gainera, ikastetxeetatik gero eta irakasle euskaldun gehiago eskatzen omen dizkiete. Eta, jakina, beharra beharra da.

egon ginen eta lohia besterik ez zegoen. Orain La Contienda gauden nahikoa elur dagoelako. Baina hor Larra-Belaguako Naturgune babestuarekin egiten dugu topo. Hor negu guztian dago elurra. Eski denboraldian pistetan elurrik ez dagoenean hara joaten gara eskiatzera. Legea egin baino lehen joaten ginen eta hurbiltzen jarraitzen dugu. Gaur egun hori egitea legez kanpoko da da, baina praktikan guk ez ezik talde guztiek erabiltzen dute beren ekitaldiarako.

■ Beraz, zuek babes eremuak aldatu nahi dituzue?

Gure jarrera eta hemengo jende askorena da legea bete behar dela. Hori posible izateko legea aldatu beharko litzateke, betiere, onura sozialean pentsatuz eta ingurua errespetatuz. Larrak 16 kilometroko diametroa du eta guk eskatzen duguna da errepide ondoan dagoen zati txikia. Gu legea errespetatzearen aldekoak gara, baina babesguneen arrastoa mugi dadila zertxobait. Praktikan ikusi den bezala, Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak, interesatzen zaienean, ez dute erreparrorik arrastoak mugitzeko.

Gainera, legean kontraesan bat dago. Bere kabuz doanari sartzen uzten diote eta modu antolatuan doanari ez.

→ Irene Arrizurieta

ILBELTZETIK APIRILERA BITARTEAN herrialdeko ikastetxeekin egiten den eski kanpainako haur txandarekin goiza elurretan igaro eta gero, bazkalondoan gurekin hitz egiteko beta hartu du Jose Miguelek. Hitz-jarria ez zaio falta eta egiten duena, Izaban bizitzea bezalaxe, oso gustuko duela antzematen zaio.

■ Urtarriletik apirilera bitartean hainbat ikastetxetako haurrak elurretara etortzen dira Erronkariko bailarara. Zer moduz doa aurtengo eski kanpaina?

Neguaeren normaltasun ezaren baitan normaltasuna da nagusi, elurrik apenas egin baitu. Joan den urtean elur asko bota zuen Errege garaian, ikastetxetako eski kanpaina hasi baino lehen, eta horrekin negu osoa iraun genuen. Aldiz, aurten oso gutxi egin du eta okerragoa gertatzen ari da.

■ Zer dakar eski kanpainak bailarara?

Esan dezakegu ustia daitekeen elurra duen Nafarroako bailara bakarra garea. Eski kanpainak garrantzi izugarria du Erronkariko bailararentzako. Aurten, hamabi astetan astero 320 gazte etorri dira hona. Egonaldiok 120 milioi pezeta uzten dute (4,8 milioi libera). Gu ez gara etekina ateratzen dugun bakarrak, bailara osoarentzat da mesedegarria. 2.000 biztanle baino gutxiago ditu bailarak, ekonomi deprimitua eta biztanleria atzerakada doa. Hori dela-eta neguko negozioa oinarritzeko da hemengo turisten urbanizazio soila bilakatu ez dadin.

■ Bailarako Batzordeak egun dauden eski pistak handitzeko proiektua egin du. Zertan oinarritzen da?

El Ferial eta Zanporiko pistak handitu nahi dira. Asmoa ez da oraingoa. Duela zortzi urte egin zen proiektuan lehenengo fasea bakarrik garatu zen. El Ferial eta Zanporiko pistak egin eta behin-behineko aterpe bat egin zen. Urteak iragan dira eta hori guztia hondatzen joan da. Bailarak

onartu du inguru hori hobetzeko proiektua. Horren arabera ingurua gehiago aprobetxatzen da. Pistak kilometro gehiago izango dituzte. Zabalduko dira maldak hain handiak ez izateko, eta pisten ibilbidea aldatuko da. Gainera, zona altuena gehiago zabalitzen da Larra-Belaguako naturgune babestura. Hori egiten bada pistak erakargarriagoak izanen dira. Iraupen eskia egiten duenak inguru polita ikusi du. Gu horren erabiltzaile garen heinean begi onez ikusten dugu aipatu hobekuntza. Ez bakarrik guregatik, baizik eta eskiak bailaran duen eragin ekonomikoagatik. Proiektua hobekuntza bat baino gehiago beharrezkoa da.

■ Beharrezkoa dela diozu. Baina pista horiek handituko balira Larrako Naturgunea bortxatuko lukete.

Pistok egin eta gero arautu zen Larra-Belaguako Naturgunearen Legea. Pistak legea baino lehen eginak daudenez haien erabilera onartzen da. Aurreproiektua saiatu da Larra-Belaguan ahalik eta kalte gutxien egiten. Jendea hor sartzeak beti du eragina. Gakoa da ahalik eta eragin txikienarekin etekin soziala lortzea. Ez dugu Añamendiraino autobiderik egin nahi. Larra-Belaguako naturguneak 16 kilometroko diametroa du eta proiektuak babesgunearen 500 metro sartuko lirateke.


Proiektuaren kostua 200 milioi-koa da.

■ Duela bi aste Erronkariko Batzordeko ordezkariak eta zuen Nafarroako alderdi politikoekin bildu zarete. Nolakoa izan da haien jarrera?

Alderdi gehienek harrera ona egin digute, IU izan zen kritikoena eta Martin Landaren jarrera oso hotza izan zen. Landak interes soziala eta ingurugiroa uztartu behar zela zioen, eta hori bera da guk esaten duguna behin eta berriro.

■ Neguak gero eta samurragoak izateak ere izanen du eragina.

Orain elurra badago. Baina iraupeneko eskiko pistak itxiak daude. Herenegun El Ferialen



● MIKEL SAIZ

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Pello Goñi

Estetikaz

ESTETIKA, HEIN BATEAN, GOGOARI, emozioei zuzenduta dago. Baina norberaren gogoia barneko bi- zipenek eragindako hainbat zizelka- daz taxutzen joaten da. Horregatik gustuez mintzatzen garelarik gure aurreiritziak salduta hitz egiteko arriskuan egoten gara, pontifikatze- ko arriskuan, nonbait, gainerakoen iritzia gutxietsiz. Gustuen gainean anitz idatzi da baina irakurri, ordea, oso gutxi egiten da, zioen Iruñeko *homo faber* hark estetika galez eztabai- daterakoan deus idatzirik ez dagoe- la dioenari aurre eginez.

Nor aukeratu Mozart eta edozein herritako ttuntuneroen artean? Valentin Garcia Yedra espainiar akade- miko zaharrak bere herriko atabala- ria hautatzen du duda izpirik gabe, nahiz eta Mozartenganako miresme- na aitortzen duen. Izan ere, ttuntun- eroak hunkidura handiagoa eragi- ten baitu haren gogoan Morzaten musikak baino. Tapiések ere xirula- jole sintoista aukeratu luke -jarre- ra estetika hutsa? - maiz erakutsi izan duen harrokeriatik ihes eginez - »arte ez dakiena mintzo ez bedi», esan du berriki haren obraren defen- tsan.

Poztekoa da xumetze ariketa hau ikustea, zeren eta estetika munduan dogmatiko gehiegi baita, alegia, han- ditasun labela kultur eredu zehatz bati baino ematen ez dión pontifika- tzaile gehiegi. Iruñeko *homo faber* hura bezalaxe: Orain arte, probin- tzianoak ginen kultur ttikitako adierazpenekin hunkitzen ginenok, Mozarten Requiemak kristoren zi- rrara eragiten digula aitortu arren, tenore zehatz batean gaitaren soinu beroa aldarrikatzen dugunok. Egoe- ra hau aldatzen hasi ote da? Auska- lo! Bitartean entzun ditzagun Garcia Yedraren hitzak, haren 85 urterekin honakoa dioelarik: «Gauzak ikasten segitzea da mundu honetako gauza- rik onenetakoa, dakiguna baino as- koz gehiago baita ez dakiguna».

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Sarasate Orkestrak kontzertua eskainiko du datorren asteartean, 20:00etan, Gayarre Antzokian. Beethovenen lanak joko ditu.
- **Barañain:** M. C. Montoya sopranoak kontzertua eskainiko du datorren ostegunean, hilak 12, 20:00etan, Andra Mari elizan. P.J. Rodríguez izanen du pianoan laguntzaile. Besteak beste, R. Halffter eta G. Verdiren lanak interpreta- tuko dituzte.

ANTZERKIA

- **Mutiloabeiti:** La Nave antzerki taldeak *Ay Carmela* antzezla- na taularatuko du etzi, 18:00etan, medikuaren egoi- tzaren behealdean.
- **Burlata:** Melodi Sisters taldeak *Con lo puesto* antzezlan a aur- keztuko du datorren ostegu- nean, 18:00etan, Hilarion Eslava musika eskolan.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikiri elkarteak an- tolatutako zinemaldiko egi- tarauaren barruan *Vallace & Gromit* eskainiko da gaur Go- lem zinematokian 20:00etan. Sarrerak 450 pezeta balio du.

BESTELAKOAK

- **Leitza:** Emakume Langilearen Eguna dela eta herriko hain- bat taldek ekitaldi bereziak antolatu dituzte etziko, 12:00etan bizikleta gainean Lilatoia eginen da plazatik hasi eta herrian barna. 13:00 poteo erreibindikatiboa triki- tilari eta bertsolariekin. 14:30etan bazkaria Torrea tabernan.
- **Tutera:** Juan Cruz Allik idatzi berri duen *Estado y sociedad: una visión desde Navarra* li- burua aurkeztuko du gaur, 20:00etan, Santa Maria hote-

lean. Ondoren, Nafarroako eskubide historikoak hizpide izanen dituen mahai-inguru- an hartuko du parte.

- **Iruñea:** Andreak makilaje ar- tistikoa lantzeko ikastaroa antolatu du hilabete honeta- rako. Informazio gehiago nahi duenak 13 33 10 eta 13 35 11 telefonoetara deitu be- har du.
- **Zangoza:** Datorren ostegunean *Zer, nola eta zertarako hezten dugu. Gero Iruñean bukatze- ko? Badira beste alternatiba batzuk* izenburuko hitzaldia

eskainiko dute Juan Ramon Elorzek Nafarroako Gober- nuko Hezkuntza Zuzenda- riak eta Maria Dolores Era- sok Kultur Etxean 20:00etan.

- **Iruñea:** Datorren asteazkene- an, hilak 11, mintzaldia eta diapositiba emanaldia izanen da Zaldiko Maldikon. Miguel Angel Asiain Deabruaren iru- di erromanikoaz ariko da 20:00etatik aurrera.
- **Burlata:** Emilio Garridok *Non- dik datorkie estresa emaku- meei?* hitzaldia eskainiko du

datorren asteartean 18:30etan, Gure Kabian.

- **Iruñea:** *Euskal museoak Gugenheim eraiki eta gero* hitzal- dia eskainiko du Xabier Amoros Donostiako San Telmo museoko ordezkariak gaur, Nafarroako Unibertsitatean, 20:30etan.
- **Iruñea:** Iruñeko harresiak: de- fentsaren artea hitzaldia es- kainiko du Victor Etxarri ar- kitektoak heldu den asteaz- kenean, 20:00etan Iruñeko Kutxan. (Armada etorbi- dea 2).

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

Ez da inor lokartzen espetszetik urkamendira daramaten orga latzean.

Eta gure bizia horixe izaki, loak hartzen gaitu

Hautemate Sofak

erne egoteakoak